



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko apirilaren 14a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Yanela Zaruma Cabreraren hilketa gaitzesten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—NUPen epe ertaineko eta luzeko helburuak eta planak aztertzeko lan-taldearen txostena. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).

—Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2011. urterako langileen plantilla organikoa (8. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Yanela Zaruma Cabreraren hilketa gaitzesten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere gaitzespenik erabatekoena adierazi nahi du Yanela Zaruma Cabreraren hilketa basatia dela-eta, iragan astelehenean hilda agertu baitzen Beriaingo Morea aintziran.

Orobat, Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna helarazi nahi die biktimaren gurasoei eta gai-nontzeko familiartekoei eta lagunei, bat egiten du haien saminarekin, eta bere egiten du Nafarroako gizarteak emakumeen aurkako indarkeria-adierazpide ororen aurka daukan sentimendua.

Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du Justiziak emakumeen aurkako indarkeria baliatzen dutenen eta hilketen errudunen jazarpen eta zigorrerako ekitearen alde, bai eta gizarte osoa

kontzientziatzeko premiaren alde, zertarako eta, erakunde publikoek sustatutako politiken laguntzarekin, gertutasuna erakuts diezaien bikotekideengandiko indarkeria pairatzen duten emakumeei, ezagutzen diren kasuak sala daitezen eta emakumeen askatasunaren, osotasun fisikoaren eta duintasunaren aurkako atentatu horiek egiten dituztenak errefusa ditzan, jazarriak eta justiziaren esku jarriak izan daitezen.

Nafarroako Parlamentuak dei egiten dio gizarte osoari, hiltzaileekiko eta erasotzaileekiko arbuioa azal dezan eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra borroka dadin, harik eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanak egiazki bidezkoak eta berdintasunezkoak izan arte.”

Iruñean, 2011ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

NUPen epe ertaineko eta luzeko helburuak eta planak aztertze lan-taldearen txostena.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Hezkuntza Batzordeak 2011ko martxoaren 22an onetsitako txostena, NUPen epe ertaineko eta luzeko helburuak eta planak aztertze lan-taldeak eginikoa.

Iruñean, 2011ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

NUPen epe ertaineko eta luzeko helburuak eta planak aztertze lan-taldearen txostena

Nafarroako Unibertsitate Publikoak bilakaera erabat positiboa izan du Nafarroako Parlamentuak 1987an sortu zuenetik, eta bere jardunbideak erreferentziako erakunde gisa sendotu du Nafarroan goi mailako hezkuntzaren eta ikerkuntzaren arloan, bere bilakaerak asko lagundu baitu Nafarroaren kultura-, hezkuntza-, ikerkuntza- eta ekonomia-hazkunderari begira, gizartearen modu nabarmenean aberastuz.

24 urte hauetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Nafarroako gizarte osoaren konfiantza bereganatu du, gogobetetze-indize handiak lortuta. Nafarroako Unibertsitate Publikoa Espainiako bigarren unibertsitate txikiena da eta titulazio kopuru txikia eskaintzen du; titulu horiek bereziki esparru teknikoak eta Gizarte Zientzietakoak dira. Ia lehen mende laurdena igarota, zeinetan gizarteak aldaketa handiak bizi izan dituen eta bizitzen jarraitzen duen, erronka bati egin behar diogu aurre: Nafarroak ezagutzaren gizarte izatea lor dezan. Erronka horretatik nekez atera ahalko gara onik, baldin eta ez badugu hezkuntzaren aldeko apustu irmoa egiten eta, zehazki, goi mailako hezkuntzaren aldekoa. Unibertsitatea, agerraldia egin zuen pertsona batek adierazi zuen bezala, ezagutzaren produkzioaren motorra da:

“Unibertsitateak gizartearen kultura-maila igoarazi behar du, erudituak produzitu behar ditu, gure helburuak izan behar duelako gizarte hobea izatea.”

Urrats hori Unibertsitateak egin behar du, baina ezin du berak bakarrik egin. “Gizarteak, oro har, parte hartu behar du zer unibertsitate publiko behar dugun definitzerakoan, azterlan gehiago eta lan gehiago egin behar da esparru ezberdinetatik abiatuta.” Unibertsitate Publikoko errektoreak agerraldia egin zuenean esan zituen hitzak dira horiek, zeinetan azpimarratu baitzuen azterlan gehiago egin beharra zegoela etorkizuneko unibertsitate hori taxutzeko, eta lan hori, aitzakiarik gabe, orain egin beharra dagoela.

1.- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jarrera.

Adierazi den bezala, Nafarroako Unibertsitate Publikoa goi mailako hezkuntza-erakunde bat da, tamaina txiki-ertainekoa, lehen eta bigarren zikloko titulazioetan 7.500 inguru ikasle prestatzen dituen, eta graduondoko tituluetan, berriz, 750 inguru. Nafarroan bizi diren ikasleek egiten dute lehen eta bigarren zikloko matrikularen ehuneko 90. Nafarroan bizi eta unibertsitate-ikasketak egiteko hautua egiten dutenen ehuneko 68k Nafarroako Unibertsitate Publikoan egiten du matrikula; hortaz, Nafarroako Unibertsitate Publikoa da Nafarroako gazteen erreferentziako unibertsitatea. Nafarroako unibertsitate-ikasleen ehuneko 33k beste unibertsitate batzuetan ikasten du; gehien-gehienek (2006an, ehuneko 32,3), NUPen gaur egun eskaintzen ez diren ikasketak egiteko edo unibertsitate publikoak egun eskaintzen dituen titulazioetan sartzeko behar adinako nota ez izateagatik.

Datu horiek badute alderdi positibo bat; izan ere, unibertsitate publikoak Nafarroako gizartearen konfiantza duela erakusten dute, baina orobat erakusten dute kultura-mestizajea txikia dela unibertsitate-sisteman, eta horretan sakondu beharra dago, mugikortasuna areagotuz, nazioartekotuz,

beken sistema sendotuz eta beste toki batzuetako ikertzaileak, irakasleak, ikasleak eta talentua erakarriz, bikaintasuneko graduondoak eskainita.

Nafarroako Foru Komunitateak modernizatu behar ditu bere esparru ekonomikoan garrantzitsuenak diren produkzio-sektoreetako jarduerak, ezagutzaren gizartearen barruan posizio ona lortzeko. Unibertsitate Publikoak orain arte izan duena baino eginkizun garrantzitsuagoa, erabakigarriagoa eta aktiboagoa izan behar du, ezagutzaren gizarteaz ari baikara, eta ez alferrik.

Eta hori guztia, unibertsitateak goi mailako prestakuntzako zerbitzuak ere eskaintzen dituela ahanzi gabe. Esparru horretan, graduen prestakuntza generalistari esker lor daitekeen multzo sozioekonomikoaren profesionalizazio mailak erki-degoaren garapena eta enpresen lehiakortasuna ahalbidetzen ditu. NUPek ezin du alde batera utzi prestakuntza hori, Nafarroaren maila sozioekonomiko bereko herrialdeetako giza kapitaleko indizeak sortu eta hobetzen dituen.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da ikasleak erakartzeko ahalmena, Europako goi mailako hezkuntza-gunearen barruan eskaintza berezitu eta espezializatua eginez, berariazko titulazioak eskainiz eta bikaintasuneko graduondoren bat abiaraziz Foru Komunitaterako zehaztutako garapen-sektoreei lotuta. Nafarroako Gobernuak eta gizarteak oro har sustatu eta indartu behar dute goi mailako hezkuntzako erakunde publiko bakarraren lehiakortasuna.

2.- Antolamendua, finantzaketa eta kudeaketa

Adierazi beharra dago administrazio-kudeaketako, autonomiako eta finantzaketako ereduari dagozkion auziak komunak direla Espainiako unibertsitatean oro har, eta ukitutako erakunde eta instituzioak, Ministeriotik hasi eta Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziaraino, aurrerabidea egiten ari direla aldatetei eta hobekuntzei dagokienez; horra “2015eko Unibertsitatea” Estrategia, “Unibertsitateak Finantzatzeko Politiken Jarraipena eta Hobekuntza” izeneko dokumentua edo Gizartea eta Ezagutza Fundazioak prestatutako dokumentua.

Hortaz, esan genezake Europar Batasun osoa kezkatzen duen auzi bat dela, alde batera utzita dauden ezberdintasunak, aldeara logikoak eta unibertsitate-kultura ezberdinak. “Europa 2030, Erronkak eta Aukerak Proiektua” izeneko estrategiak horregatik jartzen du azpimarra Europako Unibertsitateak egin beharreko hobekuntzetan, bere kompetentzia ingurune global batean sendotzeko, zeinetan AEB-ek eta ekialde urruneko zenbait

unibertsitate-erakundeak lehen tokiak hartzen dituzten ikerkuntzari eta talentuak erakartzeari dagokienez.

Comptos Ganberaren txostena erreferentziako dokumentu bat da, agian, atal hau aztertzerakoan, aipatzen diren helburuak Unibertsitatearentzat oro har bilatzen direnen gisakoak dira eta:

a) Bikaintasun akademikoa sustatzea eta, kasu honetan, Unibertsitate Publikoak Nafarroan duen inpaktu sozioekonomikoa areagotzea.

Horri dagokionez esan dezakegu agerraldia egin dutenek –bereziki, unibertsitateari estu lotutakoek: errektoreak, NUPeko Gizarte Kontseiluak, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateetako zuzendari nagusiak–, bai eta Foru Legebiltzarreko alderdi guztiek ere azpimarratu dutela Comptos Ganberak egin duen kudeaketa-txostena lan aitzindaria eta sakona dela, Espainiako beste unibertsitate batzuentzat ere balio izaten ari dena. Txostenak, NUPen testuinguru zehatzera aplikatuta bada ere, aurreratu egiten ditu arestian aipatutako txostenetan eta lanetan seinalatzen diren gaiak, eta beste unibertsitate batzuetan lan-eredu gisa baliatzen ari dira. Hor da orobat Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ekarpene Sozioekonomikoari buruzko txostena, zeinak bidea ematen baitu ondorioak ateratzeko inpaktu ekonomikoari eta NUPen inbertitutakoa gizartera itzuli izanari dagokienez. Emaitzak oso positiboak dira.

b) Unibertsitatearen administrazio- eta finantza-autonomia sustatzea. Administrazio- eta kudeaketa-molde eragingarriagoetarantz eta efizienteagoetarantz egiten bada, nahitaezkoa da Nafarroako Gobernuarekin batera urte anitzeko finantza-esparru bat zehaztea, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantza-bideragarritasuna eta –egonkortasuna ziurtatuko duena, halako moduan non Unibertsitatea osatzen duten esparru guztien kudeaketaren efizientzia, eraginkortasuna, kalitatea eta gardentasuna sustatuko baitira; alegia, baliabideen kudeaketaren arloan, irakasleen arloan eta ikerketaren arloan. Agerraldia egin dutenek argi utzi dute kaltegarria dela Unibertsitatearen aurrekontuak urtero-urtero bihurtzea eztabaidagai eta, hortaz, etorkizunerako egonkortasunik ez ikustea.

Egungo egoeran, zeinetan titulazio berrien mapa taxutu beharra dagoen, eskutik joan behar dute biek ala biek: nekez proiektu daiteke graduekiko eta graduondoekiko unibertsitate plan bat, zeinetan gailenduko diren kalitatea eta bikaintasuna, gizartearen beharrez aldakorrek inbertitutako den eta irakaskuntzaren, ikerkuntzaren eta gardentasunaren exijentziei bide emanen zaien, bal-

din eta horrekin batera ez bada beharrezkoa den finantzaketarik ezartzen, gizarteak Unibertsitateari ezartzen dizkion helburuen, erronken eta eskakizunen arabera.

c) Unibertsitatearen finantzaketak kontuan hartu behar ditu ekitatea eta ebaluazio handiago bati lotutako autonomia handiago bat, eta emaitzei lotutako finantzaketaren osagaiak jaso behar ditu.

d) Gizarte Kontseiluak –hari buruzko legeen arabera– jarraitu behar du Unibertsitate Publikoaren finantzaketari eta kudeaketari buruzko kontrol eta ikuskapen eginkizunak betetzen, bai eta gizarteak arlo horretan lagun egin dezaten sustatzen ere.

e) Kudeaketa-egitura: Estatuko oinarrizko araudiak zehazten du Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egungo kudeaketa-eredua, Espainiako gaitzetzeko unibertsitateena bezala, eta hartan kudeaketaren arloko ahuleziak ikus daitezke, unibertsitate-antolamenduaren eta haren funtzionamenduaren ondorioz.

Komeni da, hortaz, unibertsitateari buruzko oinarrizko araudia berraztertzea, erakunde hori gaur egungo beharrezkotasunetara egokitzeko, “2015eko Unibertsitatea” Estrategian jasotzen den bezala.

Halere, Comptos Ganberaren txostenean jasotzen den legez, gerentzia autoritario bat ez litzateke baliagarria izan unibertsitatearen antolamendu-taxuerari begira. Aitzitik, erabaki horiek adostasuna izan behar dute oinarri, aurrera aterako badira. Prozedura hori askoz ere mantsoagoa da, baina, epe luzean, askoz ere eraginkorragoa da.

f) Kontabilitate analitikoko sistema bat ezartzea, erabakiak hartzeko euskarri sendoa izan dena eta kontuak ematean gardentasuna erraztuko duena. Kostuak eta adierazleak ezinbesteko osagaia dira finantzaketa publikoko sistema bat definitzeko eta horren jarraipena eta kontrola egiteko.

g) Enpresetan praktikak egitea: Unibertsitateak, ikasleek praktikak egiten dituzten erakundeekin edo enprekin batera, bekadunen lan-plangintza ikuskatu eta orientatuko dute, azpimarratuz lanak lotuta egon behar duela egin den unibertsitate-titulazioaren konpetentziekin eta jakintzekin.

h) Beken politika: Unibertsiterako planteatzen diren helburuek beharrezkoa egiten dute beste beka-politika bat. Beka-politikak funtsezko zeregina du bikaintasunak, nazioartekotasunak eta mugikortasunak gizarte-konpromisoarekin eta ekitatearekin bat egin dezaten. Beka-politika ez du unibertsitateak berak definitzen, baina oinarrizko

faktore bat da goi mailako ikasketetara berdintasun egoeran iristeko.

Beka-soldadari lotutako proiektua funtsezkoa da, ahalegina eta lanaldi osoko dedikazioa bultzatzeko. Baina beka bereiztea komeniko litzateke, egiten diren graduko eta graduondoko ikasketen arabera. Merezimenduak, ahaleginak eta egoera sozioekonomikoak bekei estu lotutako faktore izan behar dute, eta ahaleginaren eta merezimenduen balioak areagotu behar dira goi mailako gradu-entara eta bikaintasuneko ikasketetara iritsi ahala.

Ikasle guztien mugikortasuna ziurtatzeak eta nazioartean mugitzeko aukerak eskaintzeak eskatzen du “Erasmus” eta “Palafox” beka berraztertzea, horien zenbatekoak handitzeko eta ikasle gehiagorengana iristeko. Hala Europako goi mailako hezkuntza-gunearen helburuek –Europako aipameneko unibertsitate-tituluak lortzeko aukerarekin– nola Latinoamerikarekiko harremanak (Palafox beka) erakusten dute nazioartean mugitzeko beka eta laguntzak hobetu beharra.

3.- Ikerkuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren transferentzia: titulazioen mapa.

Unibertsitatearen lanak bere ingurunera orientatzeko printzipioa izan behar du gida, ikerkuntza eginez gizartearen zerbitzuan, zentroen arteko atxikipena sustatuz (beste unibertsitate batzuk –Campus Iberus–, teknologia zentroak, LHko zentroak...), gure mugetatik at lehiakorak izateko.

Irakaskuntza eta ikerkuntza banaezinak dira Unibertsitatean, nahiz eta sendotzen jarraitu beharra dagoen ikerkuntza, gizartearen garapen-beharrei egokituz eta, jakina, ezagutzaren transferentziaren eginkizun garbiarekin.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren tituludunen gaur egungo egoerari dagokionez, haren konpetentziek enplegarritasun maila handia ematen diote ikasleari, eta lan-merkatuan modu positiboan baloratzen dira, nahiz eta alde handiak aurki ditzakegun, unibertsitate-titulazioa zein den (unibertsitate guztietan gertatzen da hori).

Desorekaren bat kausitzen dugu Nafarroako Unibertsitate Publikoaren tituludun-produkzioaren eta lan-merkatuko unibertsitate-mailako tituludun-entzaren artean. Adibidez, merkatuaren eskaria baino askoz ere handiagoa da zientzia juridiko eta sozialetako titulazio batzuetako matrikula, eta aldiz, irakaskuntza teknikoetakoa eta osasun-zientzietakoa txikiagoa da.

Unibertsitatea baldin bada talentu-metaketako eragile nagusia eta ezagutza-ekoizle nagusia, beharrezkoa da gizartearen eta Unibertsitatearen artean komunikazio eta irekiera handiagoa egotea,

egiazko ontzi komunikatuen gisa jardun dezaten. Kontuan hartu beharra dago Unibertsitatean eza-gutza-stock bat sortzen dela, epe ertain eta luzean erabiltzen hasi ahalko dena, nahiz eta epe motzean erabili ez.

Ondokoak dira titulazio berrien edo indartzeko proposamenen oinarrian ipini beharreko jarduketaren printzipioak:

- Ikerkuntza, irakaskuntza eta transferentzia.
- Erantzukizun soziala.
- Bizitzan zeharreko hezkuntza.
- Espezializazioa eta bereizketa: diziplinarteko campusera atxikitzea.
- Beste unibertsitate batzuekiko sinergiak bilatzea: "Iberus" bikaintasun campusa.

- Gizartearen zerbitzuko ikerkuntza:

Baldintza erakargarriak sortzea talentuak erakartzeko eta atxikitzeko.

Irakatsitako titulazioen balioak eta ahalmenak azaltzea.

Beste erkidego eta herrialde batzuetarantz proiektatzea.

- Nazioararteratzea
- Espezializazio nitxoak bilatzea graduondokotan.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak bi campus ditu; errektorearen beraren hitzetan, "unibertsitate bakar bat dira, eta, hortaz, egiten den plangintzak unitate bat balira bezala hartu behar ditu." Ikuspegi bateratu horretan kontuan hartu beharra dago zein izanen litzatekeen Tuterako campusaren garapen egokiena, ingurunerantz orientatzeko printzipioarekin eta eskualdeko garapen estrategikoekin bat.

4.- Garapen-bektoreak.

Irakaskuntzak eta ikerkuntzak zolitasunez uztartu behar dituzte, batetik, erkidegoan jada finkatuta dauden garapen sektoreak eta, bestetik, aukera berriak irekiko dituzten eta goraka ari diren sektoreen ezarpena.

Azpi-sektore industrial tradizionalenak eta pisu handienekoek jarraituko dute garapenik handiena izaten (energia, automozioa...), eta horiei beste batzuk batuko zaizkie; esaterako, industria kimikoa, nekazaritzako elikagaiak eraldatzeko industria, bioteknologia edo nanoteknologia.

Zerbitzuen sektorearen barruan, ondokoak izanen dira garapen handiena eta enplegu-eskari handiena izanen dutenak: osasun arloko jardue-

rak, gizarte zerbitzuak, mendekotasuna, hezkuntza eta garraioa.

Arrazoizkoa ematen du enpresa-sarearen dibertsifikazioak eta enpresen nahiz produktuen nazioararteratzeak, Nafarroak posizio ona har dezan eredu ekonomiko eta garapen-eredu berri batean; horretarako, ikerkuntza da finkatuta dauden sektoreak garatzeko oinarria eta negozio-aukera berriak hazteko motorra.

Ezagutzaren adar ezberdinak kontuan hartzen baditugu, ondoko titulazio-mapa irudika genezake, bai graduako bai graduondoko ikasketei dagokienez:

– Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen esparrua: Maisutzak, Ekonomia/Enpresa ikasketak, Gizarte Lana, Zuzenbidea, Itzulpen-gintza eta Interpretazioa.

– Ingeniaritzaren esparrua: Industria Ingeniaritza, Informatika Ingeniaritza, Telekomunikazio Ingeniaritza, Kimika.

– Osasunaren esparrua: Erizaintza, Fisioterapia, Medikuntza, Nutrizioa, Nutrigenomika, Biomedikuntza, Mendekotasuna eta gizarte laguntza.

Arestian adierazi den bezala, gizartearen eta unibertsitatearen arteko harremanak estua eta erraza behar du izan. Orain dela gutxi argitaratutako azterlan batek erakusten du produkzio-ehunaren gogobetetze maila handia dela Nafarroako Unibertsitate Publikoak egindako ikerkuntza eta transferentziari dagokienez, eta beste horrenbeste erakusten du Comptos Ganberaren txostenak. Hortaz, eutsi egin behar zaio, eta ahal dela hobetu, gogobetetze maila horri.

Horrenbestez, interesgarria da uztartzea Nafarroako ekonomian sektore ezberdinek duten pisua nahiz horien garapen-aukerak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko jakintza, berrikuntza eta ikerkuntza. Zerbitzuena da foru erkidegoaren ekonomian pisu espezifiko handieneko sektorea. Industria sektoreak nazioko ekonomian baino presentzia handiagoa du gure ekonomian. Osasun publikoaren sektoreak garapen handia izan dezake Nafarroan, eta erreferentzia bilakatu behar du espezialitatearen batean, ikerkuntza eta esku-hartze medikoko ildo aurreratuekin. Energiaren arloa, energia berriztagarriena eta hondakinen tratamendua ere bektore garrantzitsua dira Nafarroan, berrikuntzari, ikerkuntzari eta hazkundeari dagokienez.

Nafarroaren garapenean jauzi kualitatibo handia eman nahi baldin badugu, nahitaezkoa da enpresa-sarea dibertsifikatzea, enpresen nahiz produktuen nazioararteratzea burutzea eta produktu

berriak garatzea. Hartara, ikerkuntza eta berrikuntza sustatu beharra dago, eta erabakitasunez babestu goi mailako prestakuntza.

Lan-taldean agerraldia egin dutenek azpimarra jarri dute ikerkuntza nahiz lan ildoetan sustatu edo/eta indartu beharko liritekeen zenbait arlotan:

Nekazaritzako bioteknologia eta industria:

– Berrikuntza elementuak sartzea nekazaritzan, ikerkuntza-patenteak garatzeko.

– Nekazaritza ekologikoan edo/eta organikoan –“organic farmers”– sakontzea.

– Nutrizioari, dietari eta bizimodu osasungarriari lotutako nekazaritzaren arloan azpimarra jartzeari.

Osasun arloa

– Arestiko puntuarekin harreman estuan, nekazaritzako elikagaien eta osasunaren arloko ahaleginak bateratzea: nutrigenomika, medikuntza eta ongizatea.

– Ingeniaritza medikoa eta osasunarekin lotutako industria garatzea: farmazia produktuak, biomekanika, biomedikuntza, diagnosirako irudia, ospitaleko larrialdiak.

Hezkuntza eremua

– Prestakuntzarekin eta hezkuntzarekin zuzenean lotutako titulazioak lortzera bideratutako ikasketak sendotzea.

– Bizitzan zeharreko hezkuntzaren kontzeptua sustatzea eta sendotzea Unibertsitatean.

Ikerkuntza

– Ikerkuntza aplikatuari buruzko politika sustatzea eta nabarmendu daitekeen edo bikaina izan daitekeen arloetara eta errentagarritasun sozial eta ekonomikoa lor daitekeen arloetara orientatzea.

– Ikerkuntzaren egitura birdiseinatzea.

– Irakaskuntzako eta ikerkuntzako bikaintasun taldeak sortzea.

– Bikaintasun eta espezializazio nitxoak bilatzea graduondoetan.

Unibertsitatea-Gizarte

– Ikasketen aplikazio praktikoa eta enpresen eta unibertsitatearen arteko lankidetzaren areagotzea.

– Baldintza erakargarriak sortzea talentuak ekartzeko eta atxikitzeko.

– Emandako titulazioen balioak eta ahalmenak azaltzea.

– Atzerriko hizkuntzazko, euskarazko eta gaztelaniazko prestakuntza sustatzea.

– Beste erkidego eta herrialde batzuetarantz proiektatzea.

– Enpresetan egindako praktikak sustatzea.

– Enpresa mundua Unibertsitate ereduarekin konprometi dadin lortzea, ikasleei edo/eta tituludunei praktikak egiteko aukera emanez, eta gradu amaierako lanak eta laneko praktikak bateragarriak izan daitezen utziz.

5.- Medikuen Elkargoaren ekarpena, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako Gradua ezartzeari begira.

Ez da auzitan jartzen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren gaitasun teknikoa gradu berriak ezartzeko, besteak beste Medikuntza, nahiz eta horrek Foru Komunitateari lekarkiokeen kostu ekonomikoaren ikuspegitik baloratzen duten. Medikuntzako graduetara edo gradu sortu berrietara sartzeko den ikasle kopurua igotzeari buruz egindako azterketa oro egungo egoeratik abiatuta egin beharra dago, nazio mailan medikuen arloan etorkizunean izanen diren beharrezko proiektio egokia eginez.

Medikuen Elkargoak alternatibak proposatzen ditu Medikuntza Fakultatearen balizko sorreraren aurrean:

– Beka-sistema bat, libreki hautatzen den hiri-ian ikasteak dakartzan gastuak osorik edo hein batean estaltzeko.

– Unibertsitatean sartzeko kuoten bidezko dirulaguntza bat ere eman liteke, ikasle nafarren kasuan.

Orobat nabarmendu dituzte osasun sistemaren kalitatearekin lotutako alderdiak, profesional medikoei lotutakoak.

Haien ustez, baldintza berak eskatu behar zaizkie gure prestakuntza-sisteman sartu nahi duten atzerriko lizentziatuei eta Espainiako Medikuntza Fakultateetako ikasleei, konpetentzien frogatzeari eta kalitatearen ebaluazioari dagokienez, arreata berezia jarrita hizkuntza jakiteari.

Orobat diote beharrezkoa dela sendagileen fideltasuna lortzeko politikak ezartzeari, espezializazioaren ostean haiek alde egitea ekidite aldera, pizgarri hobeak eta aitorpen handiagoa ematen dizkieten erkidegoetara eta herrialdeetara alde egin ez dezaten. Horrek ez du eragozten profesionalen mugikortasun askeari dagokionez nazioartean hartutako konpromisoak bete ditzagun, baina

ziurtatu egin behar dugu gure osasun-sisteman sartzen diren sendagileen kalitatea.

6.- Ondorioak.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa gai da Nafarroako Foru Komunitatearen prestakuntza- eta ikerkuntza-arloko beharrezanean erantzuteko eta erronkei ekiteko eta garapen-eredu sozial eta ekonomiko berri bat sendotzeko. Nafarroako Unibertsitate Publikoak lanean jarraitu behar du, halaber, ikasketen nazioarteratzean, bai eta bizitzan zeharreko prestakuntza bultzatzen ere, prestakuntza etengabearen eta graduondoko ikasketen bidez, ikasleen sarrera-profila dibertsifikatze aldera ingurunera egokituz. Bikaintasuneko graduondoak ezinbestekoak dira beste toki batzuetako irakasleak eta ikasleak erakarriko badira eta esparru zehaztutan erreferentzia-esparru bihurtuko bagara.

Irudi bidezko Diagnosi Zentroak, Ikerkuntza Medikoaren Zentroak, Elikagaien Hiriak, CENIFER-ek, Elikagaien Teknologia Zentroak, Nafarro-

ako ikerkuntza zentroek, Nafarroako Ospitaleguneak eta Lanbide Heziketako zentroek bat egin behar dute estrategia komun baten inguruan, eza-gutzaren arloan egiazko erreferentzia-esparru bat sortzeko.

Finean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, goi mailako hezkuntza zentro publiko bat den aldetik, Nafarroaren zerbitzuko unibertsitate izan behar du, kalitatezkoa irakaskuntzari eta ikerkuntzari dagokienez, finantza-nahikotasuna eta konpromiso soziala izan behar ditu, ingurunera bideratutako ikasketak-plangintza bat izan behar du eta Foru Komunitatearen garapen-eremuetan inplikatu behar da, ahantzi gabe unibertsitateak pertsonak hezten dituela, ez bakarrik teknikari, profesional eta ikertzaile onak izan daitezzen, ezpada hori izateko nola eta herritar kritiko eta aktibo izanez.

Iruñean, 2011ko martxoaren 22an

Lan-taldeko lehendakaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2011. urterako langileen plantilla organikoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.1 artikulua xedatzen du Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onetsi behar dela, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak eginiko proposamena, Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoarena eta Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak eginiko

txostena, eta, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 14.1 artikuluaekin bat, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren,

ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2011. urterako langileen plantilla organikoa onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

a) Funtzionarioak

	Kop.	Maila	Izendapen librea	Esklusi-bitatea	Batera- ezintasuna	Lanpostu osagarria	Mailako osagarria	Osagarri berariazkoa	Arrisku bereziko osagarria
IDAZKARITZA NAGUSIA									
Legelari nagusia	1	A	X	55		80		35	
Mahaiko eta Eledunen Batzarreko idazkaritza									
Administrari burua	1	C	X			56,18	12		
Administraria	1	C				46,18	12		
ZERBITZU JURIDIKOAK									
Legelari nagusiaren ondokoa	1	A	X	55		63		15	
Legelariak	3	A		55		63			
ZERBITZU OROKORRAK									
Administrazio teknikari burua	1	B		55		42,60			
Teknikari diplomatua (***)	1	B		55		17,60			
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	1	B			35	32,60			
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A			35	33			
Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	2	B			35	32,60			
Administrariak (*)	5	C				46,18	12		
Mantenimendurako ofizial teknikaria	1	C				40	12		10
Gelazain nagusia									
Gelazain nagusia	1	D				46,50	15		
Gelazainak	10	D				36,50	15		
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA									
Prentsako burua	1	A		55		63			
Komunikazioko teknikaria.	1	A			35	33			
Itzultzaileak	5	A		55		17			
Protokoloko teknikaria (**)	1	B			35	32,60			
Administraria (*)	2	C				46,18	12		
Transkriptoreak (*)	6	C				46,18	12		
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA									
Artxibo eta Liburutegiko burua	1	A		55		43			
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	32,60			
Administraria (*)	2	C				46,18	12		
KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMI GAIETARAKO ZERBITZUA									
Kontu-hartzailetzako burua	1	B		55		42,60		15	
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	32,60			
Administrariak	2	C				46,18	12		
NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA									
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	1	B			35	32,60		20	
Administraria	3	C				46,18	12		
Gelazaina	1	D				36,50	15		

(*) 1 euskarazko titulua duena

(**) Ingelesezko titulua nahitaezkoa duen lanpostua

(***) Iraungitzeakoa.

b) Behin-behineko langileak.

<i>Kopurua</i>	<i>Lanpostua</i>	<i>Izendapen askea</i>
1	Lehendakaritzako kabineteburua	BAI
1	Lehendakariaren idazkaria	BAI
1	Mahaiko kideen idazkaria	BAI
13	Parlamentu-taldeen laguntzaileak	BAI

Arartekoaren behin-behineko langileak.

<i>Kopurua</i>	<i>Lanpostua</i>	<i>Izendapen askea</i>
1	Arloko aholkulari arduraduna	C
1	Idazkari Nagusia – Aholkulari teknikoa	C
4	Aholkulari teknikoak	C
1	Arartekoaren idazkaria	G

C = Nafarroako Arartekoaren Bulegoko behin-behineko kargua

G = Kabineteko behin-behinekoa

